

ARAUTEGIA

ATLETISMOA 2018

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XXXVII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu. Aire zabaleko pistan izango dira, 2018ko maiatzaren 26an, Arrasateko Mojategiko atletismo pistan. Hona hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA

Txapelketan honako hauek hartu dezakete parte: haurren kategoriako atletek (2004 eta 2005 urteetan jaioetakoek), baldin eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioetako partaide badira; lurralde horietako ikastetxe eta elkarte ordezkarietako taldeek eta eskola kiroleko programetan parte hartu duten elkarateek. (LURRALDE HISTORIKO BAKOITZETIK BI TALDE, BAI GIZONEZKOEN KATEGORIAN BAI EMAKUMEZKOENEAN).

Lurralde-selekzioetako taldeek bina partaide eta erreleboetarako talde bana aurkeztu ahal izango dituzte proba bakoitzean. Atleta bakoitzak banakako proba bakarra eta errelebokoa egin ahal izango ditu gehienez.

Ikastetxeetako eta elkarateetako taldeek ordezkari bana gehi erreleboetarako taldea aurkeztuko dituzte proba bakoitzerako. Atleta bakoitzak banakako proba bakarra eta errelebokoa egin ahal izango ditu gehienez.

OHARRA.- Ikastetxeetako taldeetako atletek badute beren lurralde historikoko selekzioko kide gisa parte hartzerik, ikastetxearen ordezkari gisa parte hartzen ez duten banakako proba batean; inork ezin du iraupen-probetan edo iraupen erdikoetan (500 m, 1.000 m eta 3.000 m) doblatu.

2. TALDEEN OSAERA

Taldeek bete beharreko arauak:

- a) Taldean 11 atleta badaude, 8 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- b) Taldean 10 atleta badaude, 7 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- c) Taldean 9 atleta badaude, 6 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- d) Taldean 8 atleta badaude, 6 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- e) Taldean 7 atleta badaude, 5 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.

3. JOKU SISTEMA

Egingo dituzten probak:

⇒ LURRALDE SELEKZIOETAKO TALDEEK

- a) Gizonezkoen kategorian: 80 m, 150 m, 1.000 m, 3.000 m, 3 km ibiliak, 80 m hesiak (0,84), 220 m hesiak (0,76), altuera, pertika, luzera-jauzia, pisua (3 kg), salto hirukoitza eta 4 x 80 erreleboak.
- b) Emakumezkoen kategorian: 80 m, 150 m, 1.000 m, 3.000 m, 3 km ibiliak, 80 m hesiak (0,76), 220 m hesiak (0,76), altuera, pertika, luzera-jauzia, pisua (3 kg), salto hirukoitza eta 4 x 80 erreleboak.

⇒ IKASTETXEETAKO edo ELKARTETAKO TALDEEK

- a) Gizonezkoen kategorian: 80 m, 500 m, 1.000 m, 80 m hesiak (0,84), altuera, luzera-jauzia, pisua (3 kg) eta 4 x 80 erreleboak.
- b) Emakumezkoen kategorian: 80 m, 500 m, 1.000 m, 80 m hesiak (0,76), altuera, luzera-jauzia, pisua (3 kg) eta 4 x 80 erreleboak.

Altuera-jauzian, listonak atletek eskatutako altuera txikienean jarriko dira hasieran. Nolanahi ere, 10en multiploa izan beharko du neurriak eta, gero, 10 zm erantsiko zaizkio igo behar den bakoitzean, harik eta ezarritako altueretara heldu arte. Hona hemen ezarrita dauden altuerak:

- Emakumezkoen altuera: 1,20 - 1,25 - 1,30 - 1,35 - 1,40 - 1,43 eta hemendik aurrera + 3 zm
- Gizonezkoen altuera: 1,30 - 1,35 - 1,40 - 1,45 - 1,50 - 1,55 - 1,58 eta hemendik aurrera + 3 zm
- Emakumezkoen pertika: 1,80 - 1,90 - 2,00 - 2,10 - 2,20 - 2,25 eta hemendik aurrera + 5 zm
- Gizonezkoen pertika: 1,80 - 1,90 - 2,00 - 2,10 - 2,20 - 2,25 eta hemendik aurrera + 5 zm

Jauzi horizontaletan eta jaurtiketetan, atleta bakoitzak LAU saiakera egiteko eskubidea izango du. Atleta-kopuruak ahalbidetzen badu eta zuzendaritza teknikoa ados badago, baina, atleta bakoitzak SEI aukera izango ditu.

Proba guztietan zuzenak izango dira finalak, eta bi serie egin behar badira, bata ikastetxeetako atleta ordezkariekin egingo da eta bestea lurralde-sekzioetako atleta ordezkariekin.

4. SAILKAPENA

Bi sailkapen egingo dira:

- a) Banakakoa (lehen hiru sailkatuak)
- b) Ikastetxeen edo klubaren arabera (lehen hiru sailkatuak)

Ikastetxe eta elkarten arabera puntuazioan, txapelketan parte hartzen duten ikastetxe eta elkarteetako talde-kopuruaren arabera puntu bana emango zaizkio lehen sailkatzen den atletari (ikastetxe eta elkarteetako atleta ordezkariak bakarrik hartuko dira kontuan), bigarrenari puntu bat gutxiago, hirugarrenari beste bat gutxiago eta abar.

PROBAK

Proben ordutegia eta segida:

- 10:30 3000m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 10:30 3000m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 10:30 3000 m Ibiliak GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA 5. KALEA
- 10:30 Altuera Jauzia EMAKUMEZKOA SELEKZIOA - IKASTETXEA
- 10:30 Luzera Jauzia EMAKUMEZKOA SELEKZIOA - IKASTEXEA
- 10:30 Jauzi hirukoitza GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 10:30 Pertika. GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 10:30 Pisua (3kg.) EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA -IKASTETXEA
- 10:55 80 m Hesiak (0.76) EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 11:00 80 m Hesiak (0.76) EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
- 11:10 80 m Hesiak (0,84) GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 11:15 80 m Hesiak (0,84) GIZONEZKOAK IKASTETXEA
- 11:25 80m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 11:30 80m EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
- 11:35 80m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 11:40 80m GIZONEZKOAK IKASTETXEA
- 11:45 Pisua (3kg.) GIZONEZKOA SELEKZIOA - IKASTEXEA
- 11:45 Luzera Jauzia GIZONEZKOA SELEKZIOA - IKASTEXEA
- 11:45 Jauzi hirukoitza EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 11:45 Altuera.GIZONEZKOAK SELEKZIOA - IKASTETXEA
- 11:50 500 m EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
- 11:55 500 m GIZONEZKOAK IKASTETXEA
- 12:05 220 m hesiak (0.76) EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 12:10 220 m hesiak (0.76) GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 12:15 150m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 12:20 150m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 12:25 1000 m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOZIOA - IKASTETXEA
- 12:30 1000 m GIZONEZKOAK SELEKZIOA - IKASTETXEA
- 12:40 4X80m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
- 12:45 4X80 m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
- 12:50 4X80 m EMAKUMEZKOA IKASTETXEA
- 13:00 4X80 m GIZONEZKOA IKASTETXEA



4.- IZEN EMATEA

EUSKADIKO XXXVII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOetako izenemateak Lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira (eta EZ, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zerbitzuetan) 2018ko maiatzaren 17a 20:00ak baino lehen.

2018ko maiatzaren 21a, arratsaldeko 14:00ak baino lehen inskripzio-orria Atletismoko Euskal Federaziora igorriko delarik .

Dorsalak 2018ko maiatzaren 26an bertan jasoko dituzte partaideek, probaren idazkaritzan (ordezkariak jasoko ditu bere ikastetxeko nahiz lurralde historikoko dorsak guztiak).

5. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

6. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez direnetarako, honako hauek dira:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2018ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2018ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2018ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f. Euskadiko Atletismo Federazioaren arautegia.
- g. IAAFren arautegia.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.